



Etxeen aingeru guardakoak

LUZE ZAHALEAN

Garai batean etxe askok izaten zuten atezaina. Gaur egun, aldiz, zaila da atezainik duen etxerik aurkitzea. Ez dira futboleko atezainak bezain famatu eta ugariak. Lerrootan, galzorian dagoen lanbide honetan murgiltzeko gonbita egiten dizugu. Sar gaitzen barrura: atezaindegiko atea zabalik dago-eta.

Asier Coloma

Hiztegiaren arabera, atezaina etxe edo eraikuntza bateko sarrera zaintzen duen pertsona da. Errealitatean, ordea, hori baino askoz ere gehiago egiten du atezain batek. Atezaindegia eskaintzen dion talaiatik, bizilagunen egunerokotasunaren lekuko isila da. Hamaka bitxikeria eta pasadizoren berri ere izaten du. Ondorioz, harreman berezia sortzen da atezainaren eta bizilagunen ar-

tean. Atea zaintzen ez ezik, psikologo lanetan jardun behar dute maiz.

Atezainaren zeregin nagusia etxearen mantentze eta zaintze lana da. Dena dela, askotan ez dago argi atezainaren zeregina non amaitzen den. *"Bere etxeko paretako margoa erori zitziola-eta, bizilagun batek ea berriz margotuko nion galdetu zidan. Nik baietz erantzun nion eta paretan margotzen hasi nintzaion. Behin lanean hasita, beste paretan zati batzuk*

margotzeko eskatu zidan. Ohartzera, gela goitik behera margotu nion", esan digu Amara Berriko atezain batek.

Bizilagunekiko harremanak

Atezain izateko, lagunartekoa izan behar du batek. *"Oro har, atezain eta bizilagunen arteko harremana oso ona da. Hala ere, bada salbuespenik. Izan ere, batzuek beren jabetzako esklabo edo morroitzat hartzen zaituzte. Baina tira, hori lan*

Luze zabalean


gehienetan gertatzen da”, esan digu San Bartolome kalean lanean ari den Jokin Duesok.

Parte Zaharreko San Joan kalean lan egiten Bonik, eta iritzi berekoa da: “Atezain izan aurretik, ostalaritzan lan egin nuen. Finean, bi ogibideen artean ez dago hain besteko alderik. Izan ere, bietan jendeak zugar konfiantza izatea lortzen duzu, eta azkenean, erdi psikologo bilakatzen zara. Jendearen aieneen harresia gara. Dena den, niri jendearekin tratua izatea gustatzen zait”.

Atezaindegia

Atezain asko atezaindegian bertan bizi da. “Jende askok musutruk bizi garela uste du; baina atezaindegia ez digute debalde ematen. Soldataren %15 inguru kentzen digute etxean bertan bizitzearen truke”, esan digu Duesok. Duesok 17 urte daromatza atezaintzan.

Atezaindegia lantegi eta bizileku izateak bere alde txarrak ditu: etxe batzuk txi-



Atezainak psikologo lanetan jardun behar du maiz

kiegiak izatea, nagusiekin batera bizi beharra... “Hala ere, abantailak ere baditu, ezinezkoa baita lanera berandu heltzea”, diosku Bonik, umoretsu.

Bitxikeria ugari

Atezainek hamaika pasadizo dituzte kontatzeko. Bonik horietako bat azaldu digu: “Denetarik ikusi dut. Parte Zaharrean egonda, asteburuetan izaten da pasadizorik gehien. Izan ere, maiz etxetik kanpoko jendea sartzen da eraikinera. Gazteek “botiltzarra” edo “litroak” egiteko erabiltzen dute Zuloaga plaza. Eskaileretan, teilaturako irteeran... topatu izan ditut. Eta txorta jotzen ari zen bikote bat baino gehiago ere aurkitu dit. Egia esan, ez dakit zergatik etortzen diren hona, Urguli mendia hain gertu edukita... Egoera zaila da, bai bikote ho-

Lan baldintza kaxkarrak

Gipuzkoako atezainen lan baldintzak ez daude inon araturik. Izan ere, herrialde gehientsuenek lan hitzarmena duten arren, Gipuzkoako atezainek ez dute horrelakorik. Horregatik, lan baldintzak asko aldatzen dira etxe batetik bestera.


Ordutegiari dagokionez, lanaldi luzeak egiten dituzte. Astean, 56 ordu baino gehiago egiten dituzte gehienek. Hala ere, atezain gutxi batzuek beren egoera hobetzea lortu dute: “Atezain batzuek, astero 40 lanordu egitea lortu dugu”, esan digu Jose Mari Cruz atezainak.

Gainera, Donostiako atezain gehientzako, atezaindegia lantoki eta bizileku da aldi berean. Finean, eguneko 24 orduak, astelehenetik igandera, ematen dituzte lanean.

Soldatak ere ez dira aberasteko modukoak. Hala ere, alde handia dago etxe batetik bestera: “Gure soldataren oinarria, lanbide arteko gutxieneko soldata da. Baina emandako zerbitzu gehigarrien arabera —zaborra jaitsi, garbitu, lorategia zaindu...—, oinarri hori handitu egiten da. Zenbat eta bizilagun gehiago izan, zenbat eta zerbitzu gehiago eskaini, soldata han-

diagoa da. Atezainen soldata, oro har, 600 eta 1.200 euro bitartekoa da”, esan digu Jokin Duesok.

Gainera, egoera aldatzea zaila da. Izan ere, ez dago atezainak biltzen dituen elkarte edo sindikaturik. Ondorioz, atezain bakoitza, bere kabuz, bizilagunekin akordioa lortzen saiatzen da. Oro har, bizilagunek ez dute begi onez ikusten atezainaren ordutegia murriztea edo soldata igotzea. “Gu ez garela existitzen ematen du. Alderdi politikoak eta sindikatuak ez dira gutaz arduratzen”, kexatu zaigu Boni.



rrrentzat, baita niretzat ere”, aitortu digu.

IRUTXULO astekariarekin lotutako pasadizo baten berri ere eman digu. “1998ko urtarrilaren 1ean gertatu zen. Garai hartan IRUTXULOk San Joan kalean zuen egoitza. Egun hartan, sekulako ekizta ari zuen, eta olatu izugarriak zeuden. Urteberriko bazkaria Añorgan izan nuen, eta Zuloagara iritsita, plazan argirik ez zegoela konturatu nintzen. Etxera sartu, eta guztia urez gainezka topatu nuen. Dirudienez, olatu batek Salamanca pasealekuaren kontra jo eta San Joan kalera heldu zen, bidean harrapatutako pertsiana, pareta eta ate guztiak txikituz. Beheko solairua txikituta zegoen. Olatua sartu zenean, ez zegoen inor bertan. Eskerrak horri, bestela hildakoak egongo ziren”, ziurtatu digu Bonik.

Etorkizun beltza

Atezaintza galbidean dago, ezbairik gabe. Hiri handiak dira salbuespena. Donostia-
ren kasuan, gutxi batzuk baino ez dira geratzen. Baina lanbidea zeharo desagertuko ote da? “Garai batean beharrezkoagoak ginen: ikatz berogailua egoten zen etxeetan, atezain automatikorik ere ez zegoen... etorkizun beltza dugu”, diosku Duesok kopetilun. Beste atezain batzuk, baikorrakoak dira. “Bizilagun askorentzako alferrikako gastua baino ez gara. Dena den, kalkuluak eginez gero, garbiketa enpresa bati hilabetean ordaintzen zaiona eta guri ematen zaiguna, kopuru bera da. Eta guk askoz ere zerbitzu gehiago eskaintzen ditugu. Nire ustez, etxe batzuetan beti egongo dira atezainak”, esan digu Bonik.

“Gu izango gara azken atezainak”

Atezain hitza entzuterakoan, egun osoa marmarrean eta kuxkuxean ematen duen pertsona zahar baten irudia datorkigu burura. Ez da benetako irudia, baina. Jose Mari Cruzek hamaika urte daramatza Grosen atezaintzan.

Atezainak atezaindegian ematen du bere biziaren zati handiena, ezta?

Bai. Lehen, astean 56 lanordu egiten nituen. Duela gutxi, 40 lanordutara murriztea lortu nuen. Ezin dut kexatu, margotzeko eta idazteko denbora ematen baitit.

Atezainei buruz topiko ugari dago...

Bar. Txutxu-mutxuak gogoko ditugula, bizilagunak zelatatzen ditugula... Oro har, ez da horrela izaten. Nik, esaterako, harremana ezin hobea dut bizilagunekin.

Ez al dago emakumerik lanbide honetan?

Garai batean asko ziren. Isabel andrea, adibidez, oso ezaguna zen Grosen. 40 urte eman zituen Kolon pasealekuko etxe batean, eta erretiroa hartu zuenean, bizilagunek atezaindegian geratzen utzi zioten, zendu arte. Nik dakidala, gaur egun ez dago emakumerik Donostiako atezaindegietan. Bilbon,artzelonan eta... badaude,



baina Donostian ez dut inor ezagutzen.

Lanbideak etorkizuna al du?

Garai batean atezain asko zegoen Donostian. Kontatu didatenaren arabera, eraikin honetako lehen atezaina 36ko gerran fusilatuta zuten. Hau jauntxoien etxea zen, eta bizilagun guztiek ihes egin zuten, errepublikarrei beldurrez. Milizianoak etxera sartu omen ziren, eta sotoan aurkitu omen zuten atezaina, ikatz artean ezkutatuta. Eta hantxe bertan hil omen zuten. Ni etxe honetan ari futako laugarren atezaina naiz. Nire ustez, gu izango gara azken atezainak.